



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 31

44. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Mendigorriko Udalaren 2014ko finantza-egoerari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina
(2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mendigorriko Udalaren 2014ko finantza-egoerari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Mendigorriko Udalaren 2014ko finantza-egoerari buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mendigorriko Udalaren 2014ko finantza-egoerari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua eta norainokoa (5. or.).

III. Ondorioak (5. or.).

III.1. Udalaren zorpetzea (5. or.).

III.2. 2000tik egindako inbertsio nagusiak eta haien finantzaketa (10. or.).

III.3. Mendigorriko Udalaren aurrekontu-egoera 2014ko abenduaren 31n (11 or.).

III.4. Kudeaketaren beste alderdi edo arlo bartzuk (17. or.).

III.5. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak (2012tik 2014rako ekitaldiak) (19. or.).

III.6. Amaierako laburpena eta gomendioak (22. or.).

I. eranskina. Udalaren aurrekontu-likidazioaren bilakaera (2000tik 2014ra) (24. or.).

II. eranskina. Udalaren balantzearen bilakaera (2000-2014) (25. or.).

Mendigorriko alkateak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (26. or.).

Mendigorriko Udaleko alkate ohiak aurkeztu dituen alegazioei Kontuen Ganberak eman dien erantzuna (28. or.).

I. SARRERA

Mendigorriko Udalaren Osoko Bilkurak, 2015eko ekainaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen bere finantza-egoerari buruzko txosten bat eskatzea Kontuen Ganberari, bereziki zorpetze-bolumenaren handia zela eta.

Azterlan hori Kontuen Ganberak 2015. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan. Azterketa lana 2015eko azaroan egin zen.

Mendigorria Arga ibaiaren arroan dagoen udalerrri bat da; 39,3 km²-ko azalera du eta 1.078 biztanle zituen 2014an. Nabarmenezkoa da 2000. urtetik haren populazioak ehuneko 20ko hazkunde izan duela.

Udalaren datu ekonomiko eta langileei buruzko datu garrantzitsuenak honako hauek ziren 2014ko ekitaldiaren itxieran:

Udala	Zenbatekoa
Aitortutako eskubideak	774.347
Aitortutako betebeharrak	756.769
Zor bizia 2014-12-31n	1.764.628
Langileak (kopurua)	4

Udalak ez du tresna-izaerako enterik sortu, eta honako entitate hauetan hartzen du parte: Izarbeibarko Mankomunitatea (uraren hornidura eta saneamendua eta hiri hondakin solidoen tratamendua), Izarbeibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Erdialdearen Garapenerako Partzuergoa (garapenerako eta turismo-jarduerarako agentzia) eta Tafallako Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa.

Halaber, Mendigorriko Sagrada Familia fundazio pribatuaren patronatuan parte hartzen du. Haren jarduera nagusia da udalerrian hirugarren adinekoentzako egoitza bat eraikitzea. Egoitza horren lanak gaur egun gerarazita daude.

Ondoren ematen dugu Mendigorriko Udalak ematen dituen zerbitzu nagusiei buruzko laburpen bat:

Zerbitzua	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzuen kontratazioa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X		
Aguazilak	X		
Ikastetxe publikoa	X		
Gizarte zerbitzuak		X	
Babestutako enplegu soziala		X	
Enpleguaren sustapena	X		
Zerbitzua	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzuen kontratazioa
Hilerria	X		
Hirigintza	X		
0-3 urtekoen ikastetxea			X
Gizarte-etxea			X
Gazteria	X		
Kirol instalazioak	X		
Liburutegia	X		
Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa		X	
Uraren hornidura eta saneamendua		X	
Hiri-hondakinak		X	
Bide garbiketa	X		

Kontuen Ganberak, 2001ean, Mendigorriko Udalaren 2000ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txosten bat argitaratu zuen.

Udalari aplikatzekoa zaion araubide juridikoak funtsean osagai hauek ditu: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Kontabilitatearen eta aurrekontuaren arloan, Udalak irailaren 21eko 273/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Jarraibide Bakunari jarraitzen dio.

Txostenak hiru atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa erakusten ditugu. Hirugarrenean, gure jardueran lortutako ondorioak jasotzen dira, bai eta udal kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen diren gomendioak ere.

Halaber, bi eranskin gehitu dira, bata Udalaren 2000tik 2014ra bitarteko aurrekontu-likidazioen kapitulu ekonomikoen araberako laburpenarekin eta bestea aldi horrexetarako egoera-balantzeko ondare-masen bilakaerarekin.

Txosten honetan aipatutako taula eta iruzkin guztiak euro korrontetan emanak daude.

Jarduketa honen emaitzak egungo alkateari azaldu zitzaizkion, bai eta 2015eko ekainera arte kargu horretan aritutakoari, kasua bada egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Aurreko alkateak alegazioak aurkeztu ditu. Txosten honetan gehitu dira alegazio horiek.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, eta kontuan hartuta Udaleko osoko bilkurak egindako eskaria, azterketa mugatu bat egin dugu Mendigorriko Udalaren 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz.

Lanaren helburua, beraz, izan da ondorio batzuk ematea “Udalaren zorpetze-bolumenari buruzko azterketa eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoera direla-eta”.

Jarduketa horretarako, funtsean, Udalaren 2010etik 2014ra bitarteko kontu orokorrak aztertu ditugu. Hala eta guztiz ere, zorpetzearen, finantzaketaren eta inbertsioen arlorako, denbora-esparru hori 2000ko ekitalditik hasi dugu –zeren eta eragiketa nagusiak aldi horren barruan egin baitziren–, eta zorpetzearen arloari dagokionez, gainera, 2015eko urriaren 31ra arte luzatu dugu.

Hartara, funtsean, honakoei buruzko azterketa eta berrikuspena egin ditugu:

- Udalaren zorpetzearen bolumena eta haren ezaugarriak. 2014ko abenduaren 31ko eta 2015eko urriaren 31ko egoera.
- Udalak egindako inbertsio garrantzitsuenak eta haien finantzaketa.
- Aurrekontu-likidazioetatik heldu diren adierazle eta magnitude nagusiak.
- Udalaren diruzaintza-arloaren eta beste kudeaketa-arlo batzuen egoera.
- Udalak 2012tik 2014ra bitarteko ekitaldietan aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraukortasuneko printzipioak bete dituen begiratzea.

Metodologia gisa, lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta hirugarren eta laugarren mailako kasuko ISSAI-ES arauak aplikatu dira. Lanaren helburuen eta inguruabarren araber beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak erabili dira.

III. ONDORIOAK

Jarraian garatuta agertzen dira aurreko atalean adierazitako ondorioak.

III.1. UDALAREN ZORPETZEA

Lehena. Udalaren 2014ko abenduaren 31ko zor bizia

2014ko abenduaren 31n, Udalaren zor bizia, ekitaldi horretako urteko kontuei jarraituz, 1,76 milioi eurokoa da. Haien xehetasunak honako taula honetan ikus daitezke, eurotan emanak.

Entitatea	Zertarakoa	Kreditua. Emandakoaren muga	Data	Epea	Zor bizia
Rural Kutxa	Kredituak birfinantzatzea eta udal pilotalekua egiteko obra	668.943	2006	25	663.214
CAN-Caixa	Kredituak birfinantzatzea eta udal pilotalekua egiteko obra	668.943	2006	25	450.823
Rural Kutxa	Haur eskola, altzariak eta Nafarroako Ubideko ureztaketa	396.500	2008	25	349.251
CAN-Caixa	Haur eskola, Nafarroako Ubideko ureztaketa eta obrak	396.500	2008	25	301.340
Zor bizia, guztira, 2014ko abenduaren 31n		2.130.886			1.764.628

Egindako lana egin eta gero, hona esan nahi duguna:

- Aurreko eragiketak kreditu-polizen formula erabiliz gauzatzen dira. Hau da, eragiketa bakoitzean gehieneko muga bat ematen da, zeina gutxitzen (amortizatzen) joaten baita polizan ezarritako aldietan. Kreditu horiek kontu korrante bati lotuta daude, eta bertan idazten edo erregistratzen dira kreditutik erabiltzen diren kopuruak eta Udalak sartzen dituenak. Data jakin batean kreditua egon zain dagoen kopurua da aipatutako mugaren eta kontu atxikian mantendutako funts likidoen arteko aldea.

- 2006an erabilitako kredituak erabili ziren pilotalekuko obrak finantzatzeko eta aurreko ekitaldietako kredituak birfinantzatzeko. Hartara, 2002an, Udalak bi kreditu-poliza hitzartu zituen, entitate berekin formalizatuak –Rural Kutxa eta CAN–. Batera 738.072 zenbatekoa egiten dute, eta haien xedea da Udalaren obrak finantzatzea; euriborra gehi oinarrizko puntu bateko interes-tasa dute. Eragiketa horietatik ordaintzeko dauden saldoak 2006an hitzartutako kredituekin birfinantzatu ziren. 2008an formalizatutakoak bideratu ziren, funtsean, haur eskola eraikitza eta ekipatza, bai eta herri-lurretan ureztaketa-sistema jartzeko obrak egitera ere. Nolanahi ere, hitzartutako kredituak hainbanatu egiten dira aipatutako bi finantza-entitateen artean.

- Kreditu horiek ondoren zehazten diren finantza-ezaugarriak dituzte:

Ezaugarri teknikoak	CRN-2006	CAN-Caixa 2006	CRN-2008	CAN-Caixa 2008
Emateko data	2006/03/28	2006/03/22	2008/08/27	2008/07/18
Emandakoaren muga (eurotan)	668.943	668.943	396.500	396.500
Zor bizia 2014-12-31n (erotan)	663.214	450.823	349.251	301.340
Epea	300 hilabete (25 urte)	25 urte	300 hilabete (25 urte)	25 urte
Ezaldia	0	0	0	0
Gutxitzearen maiztasuna (amortizazioa)	Muga-egunean	Urtero	Muga-egunean	Urtero
Gutxitzearen zenbatekoa (eurotan)	n.a.	26.758	n.a.	15.860
Interes-tasa lehenengo hilabeteetan	% 3,35 (12 hilabete)	% 3,35 (3 hilabete)	% 5,861 (12 hilabete)	% 5,719 (12 hilabete)
Interes-tasa gainerako hilekoetan	Euriborra+0,25	Euriborra+0,25	Euriborra+0,30	Euriborra+0,35
Berrikuspenaren maiztasuna	Urtero	Hiru hilean behin	Urtero	Urtero
Interesen likidazioaren maiztasuna	Hiru hilean behin	Hiru hilean behin	Hiru hilean behin	Hiru hilean behin
Irekiera-komisioa	0	0	0	0
Erabili gabeko batez besteko saldoaren komisioa	0	0	0	0
Amortizazio aurreratuaren komisioa	0	0	0	0
Bermea	Langileak	Bermerik gabe	Bermerik gabe	Bermerik gabe

Taula horretatik nabarmendu behar dugu ezen, oro har, kreditu horiek formalizatzeko baldintzak onak direla, bai aplikatzekoa den interes tasari –2014an ehuneko 0,8 eta 0,9 bitarte– eta bermerik ez izateari dagokienez, bai komisiorik ez egoteari dagokionez ere. Azken hori bereziki garrantzitsua da erabili gabeko saldoetarako eta amortizazio aurreratueterako. Halaber, Rural Kutxaren maileguez ez dute gutxitze-konpromiso aldizkatorik (amortizazioa); izan ere, aurreikusita dago 25 urteko epearen amaieran kitatzea; halere, amortizazio aurreratuak egin daitezke inongo finantza-kosturik gabe. CAN-Caixarekin sinatutako beste bi kredituetan, amortizazio hori urtekoa eta jarraitua da, 25 urteko epearen barruan.

Baldintza horiek errazago egin dute, besteak beste, Udalak polizei eustea, nahiz eta ez diren guztiz erabili eta kontu korrante arrunt gisara erabiltzen ari diren.

- 273/1998 Foru Dekretuko 130. arauak honakoa dio: *“hitzartzen diren erabilera gradualeko kredituak formalizatzeko unean baimendutako mugaren balioaren arabera kontabilizatuko dira, eta berariazko banku-kontu bat irekiko da non erabilgarri dagoen diru-kopurua jasoko baita. Amortizazioak mugaren beherapenekin bat etorriko dira”.*

Horrenbestez, kontabilitatearen arloko arau indardunari jarraituz, ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontuari hitzartutako kredituen mugari dagokion kopurua egotzen zaio, eta diruzaintzan erre-

gistratzen dira haietatik erabili gabeko saldoak; zor bizia baimendutako mugaren gainean kuantifikatuko da, horri muga horren aldizkako gutxitzeak/amortizazioak kenduta.

Araudi horren arabera, honako hau da kreditu horien egoera 2010etik 2014ra bitarteko aldian:

	2010	2011	2012	2013	2014
Kontabilitateko zor bizia	1.997.253	1.939.014	1.896.635	1.850.441	1.764.628
Diruzaintza, erabili gabeko saldoak	521.368	528.854	521.526	629.394	637.469
Zorpetze garbia	1.475.885	1.410.160	1.375.109	1.221.047	1.127.159

2014ko abenduaren 31n, zor edo muga bizia 1,76 milioikoa da. Erabili gabeko saldoa, 0,64 milioi, berriz, Udalaren diruzaintza-egoeran islatzen da. Horrenbestez, zor garbia edo egiazki erabilitako saldoa 1,13 milioikoa da.

Gure iritziz, erabilera gradualeko kredituei emandako kontabilitate-tratamendu horrek alde on bat badauka: kasuko ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioak hitzartutako zorpetzearen bolumena islatzen edo ikusarazten du. Mendigorriko Udalaren kasuan, haren zor guztia guztiz erabili ez diren saldoak dituzten kredituetatik heldu denez, eragiketa horrek eragina du bai zorraren bolumen errealean, bai bere diruzaintza-egoeran ere –eta, horrenbestez, diruzaintza-gerakinean–.

- Kontabilitate- eta aurrekontu-informazioari buruz egindako azterketatik, nabarmendu behar dugu CAN-Caixaren polizen kredituen mugak gutxitzen doazela aldizka, oro har beren baldintzen arabera: guztira, baimendutako guztizko mugaren urteko 1/25 egiten dute. Rural Kutxarekiko kredituei dagokienez, Udalak haien mugak honako kopuruetan gutxitu ditu: 2006ko kredituan, 5.729 euro 2013an; 2008ko kredituan 3.816 euro 2013an eta 43.433 euro 2014an.

- Hurrengo taulan erakusten dugu finantza-zamaren bilakaera –hau da, interesak¹ eta egindako amortizazioak/gutxitzeak– eta hark Udalaren gastuen guztizkoan duen garrantzi erlatiboa:

Ekitaldia	Interes	Amortizazioa	Finantza-zama, guztira	Gastuak, guztira (%)
2006	8.727	7.145	15.872	2
2007	20.642	38.216	58.858	3
2008	40.070	26.519	66.589	5
2009	26.116	42.379	68.495	4
2010	24.245	42.379	66.624	6
2011	28.169	42.379	70.548	8
2012	23.605	42.379	65.984	8
2013	13.368	46.194	59.562	8
2014	9.461	85.812	95.274	13

Ikus daitekeen bezala, interesek, euriborraren bilakaera dela-eta eta azterketa-formulak aplikatuta, behera egin dute pixkanaka ekitaldiz ekitaldi. Amortizazioaren ondoriozko gastuak nabarmen egin du gora 2014an, zeren eta urte horretan Rural Kutxarekiko kredituak beheratu baitziren.

Udalaren guztizko gastuaren gainean finantza-zamak egiten duen ehunekoan eragina dute Udalaren aurrekontu orokorrak bai urte horietan –ikus 1. eranskina–, bai 2014an izan dituen gutxitzeak, Rural Kutxaren kredituak amortizatzearen ondorioz.

- Azkenik, aipatu beharra daukagu 2011n eta 2012an gastuen 9. kapituluan “urharguneetarako mailegu” baten amortizazioa jaso zela; 1.559 euro eta 1.400 euro hurrenez hurren. Era berean, 2013ko eta 2014ko ekitaldietan, kontzeptu hori bera dela eta, kapital-

¹ Soilik kreditu-polizetatik heldutako interesak kontuan hartuta.

transferentzien 7. kapituluan 1.296 euro eta 1.369 euro erregistratu ziren, hurrenez hurren. Gure ustez, kontabilitate-tratamendu zuzena azken hori da, zeren eta maileguaren titularra Ureztatzai-leen Elkarteak baita, eta horrek finken jabeak ordainarazten die.

Bigarrena. Udalaren epe luzeko zorraren bilakaera (2000-2014)

Hurrengo taulan, milaka eurotan adierazita, erakusten dugu, balantzearekin bat, epe luzeko zorrak nolako bilakaera izan duen 2000tik 2014ra, bai eta zenbateko horrek entitatearen diru-sarrera arruntetan egiten duen ehunekoa ere.

Ekitaldia	Epe luzeko zorrak edo zor bizia	Aurkibidea	Diru-sarrera arruntetan gainera zor bizia (%)
2000	244	100	53
2001	229	94	55
2002	951	389	169
2003	921	377	172
2004	848	347	138
2005	804	329	139
2006	1.338	548	193
2007	1.305	534	138
2008	2.098	859	296
2009	2.024	828	294
2010	1.997	817	257
2011	1.939	794	262
2012	1.897	776	260
2013	1.850	757	246
2014	1.765	722	232

Hau da, aztertutako aldirian, zor bizia ia zazpi aldiz biderkatu da, eta 2008an 2,1 milioikoa izatera iritsi da. Kopuru horrek diru-sarrera arruntetan egiten duen ehuneko 296 egiten zuen. Urte hori pasata, bai bolumena bai ehunekoa pixkanaka apaltzen joan dira, gutxi bada ere.

Nafarroako toki ogasunei aplikatzekoa zaien araudiari jarraituz, Udalen zorraren muga zor biziak Udalen diru-sarrera arruntetan egiten duen ehunekoak markatzen du; eta ehuneko 110 dela ezarri da. Udalak argi gaitzen du ehuneko hori 2002tik; hartara, 2014an, portzentaje hori ehuneko 232 da. Zor garbiari erreparatuz gero, portzentaje horrek 2014an ere muga hori gaitzen du, ehuneko 148 baita.

Horrenbestez, Udalak legezko muga hori urratu du, eta horrek berarekin dakar zorpetze berririk ezin hartzea.

Hirugarrena. Mugaren amortizazioaren/gutxitzearen proiektzioa

Aurreko kredituen amortizazioaren/gutxitzearen denbora-proiektzioa bi hipotesiren arabera egin dugu: a) kreditu guztien mugaren etengabeko gutxitzea; b) kasuan kasuko kontratuei jarraituz, CAN-Caixaen kredituak etengabe gutxitzea eta Rural Kutxarenak, berriz, haien amaieran.

Kreditu-mugen etengabeko amortizazioaren kasuan, ondorengo da urtek gastua:

Aldia	Urteko gastua
2015 eta 2031 bitarte	99.773
2032 eta 2033 bitarte	34.242

Rural Kutxarekiko kontratuen baldintzak zorrotz aplikatuz gero, honako hau da proiektzioa:

Aldia/urtea	Urteko gastua
2015 eta 2030 bitarte	42.379
2031	705.593
2032	15.860
2033	365.111

Bigarren hipotesi horrekin, Rural Kutxarekiko kredituen kitapena haien muga-eguneko urtera arte geroratzen da, hau da 2031ko eta 2033ko ekitaldietara arte. Logikoa denez, urte horietan udal aurrekontuek oso modu nabarmenean nozituko dute hori.

Laugarrena. Interes-tasa

Interes-tasen bilakaera, polizen indarralditik hasi eta 2015eko urriaren 31ra artekoa, honako taula honetan erakusten da:

Entitatea	Erreferentziako adierazlea	Hasierako interes-tasa (polizak)	Interes-tasa 2014-12-31n	Interes-tasa 2015-07-01ean	Interes-tasa 2015-10-31n
Rural Kutxa 2006an	Euriborra + 0,25	% 3,350	% 0,837	% 0,449	% 0,449
CAN-Caixa 2006	Euriborra + 0,25	% 3,350	% 0,579	% 0,462	% 0,467
Rural Kutxa 2008an	Euriborra + 0,30	% 5,861	% 0,813	% 0,813	% 0,404
CAN-Caixa 2008	Euriborra + 0,35	% 5,719	% 0,94	% 0,942	% 0,515

Ikusten den bezala, euriborraren erreferentzia eta haren beheranzko joera, azken urteetan antzeman dena, eragiten ari da poliza horien erreferentzia interes-tasa oso lehiakorrak izatea. Egoera horrek, gutxienez ere epe laburrean, interesen ondoriozko finantza-zama oso murrizta dakar.

Halaber, gai horretan eragina dute kreditu-polizek kontu korrante arrunten arabera funtzionatzeak eta Udalak diruzaintza dela-eta egindako kudeaketak.

Bosgarrena. Zor bizia 2015eko urriaren 31n

Hurrengo taulan jaso dugu kredituen 2015eko urriaren 31ko egoera:

Kredituak	Zor Bizia (2015-10-31)	Erabilitako saldoa (2015-10-31)	Erabili gabeko saldoa (2015-10-31)
Zenbatekoa	1.678.816	946.363	732.453

Egia esan, zor bizia edo kredituaren muga 1,68 milioi eurokoa zen 2015eko urrian, 2014ko abenduaren 31ko kopuruaren aldean 85.812 euro jaitsita. Kopuru hori dagokie CAN-Caixaren kredituen etengabeko amortizazioari -42.379 euro- eta 2008an Rural Kutxaren kreditua 43.433 euroan gutxitze izateari.

Data horretako zorpetze garbia edo erabilitako saldoa 0,95 milioikoa da; hau da, 2014ko abenduaren 31n baino 180.796 euro gutxiago.

Interesak direla eta, Udalak 4.613 euro ordaindu ditu urriko data horretara arte; honela xehaka daiteke kopuru hori: 3.313 euro Rural Kutxarentzat eta 1.300 euro CAN-Caixarentzat.

III.2. 2000tik EGINDAKO INBERTSIO NAGUSIAK ETA HAIEN FINANTZAKETA

Seigarrena. Egindako inbertsioak (2000tik 2014ra)

2000tik 2014ra Udalak, bere aurrekontuetako inbertsioen 6. kapituluari jarraituz, 6,86 milioi inbertitu ditu.

Hurrengo taulan aipatzen ditugu egin diren inbertsio-jarduketa nagusiak, bai eta transferentzien bidez jasotako finantzaketa ere, milaka eurotan adierazia.

Deskribapena	Inbertsioa	Transferentzien bidezko finantzaketa
Zola ematea	1.296	914
Pilotalekua	1.212	410
Igerilekuak eta futbol zelaia	1.056	412
Otik 3 urtera bitarteko Haur Eskola	1.015	512
Zeharkalea	561	475
Gizarte-etxea	239	109
Udaletxea	184	90
Guztira	5.563	2.922

Udalaren inbertsio-jarduketa handiak 2002an –igerilekuak eta gizarte-etxea–, 2007an –pilotalekua eta zolatzea– eta 2009an –haur eskola eta zolatzea– izan ziren; nabarmenezkoa da Udalaren zenbait bide zolatzeko egindako inbertsio-ahalegin handia. Ondorengo jarduketak finantzatzeko 2,9 milioi euroko diru-laguntzak jaso dira, funtsean Nafarroako Gobernutik; hau da, inbertsioaren ehuneko 53.

2010eti, inbertsioak nabarmen gutxitzen joan dira, eta 2014an 34.497 eurokoak izatera iritsi dira.

Azken batean, aldi honetan herriari kirol instalazioak, gizarte-ekipamenduak eta haur hezkuntzako zentroa eman zaizkio, eta hiri-azpiegitura nabarmen hobetu da.

Zazpigarrena. Inbertsioen finantzaketa

Oro har, 2014ko abenduaren 31ra arte inbertsio hauetarako metatu den finantzaketa funtsean honako bide hauetatik egin da (euroak, milakotan).

Finantza bideak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Inbertsioetarako transferentziak	3.997	58
Zorduntzea	1.528	22
Aurrezki garbia	1.052	16
Inbertsio errealak besterentzea	282	4
Inbertsioak, guztira	6.859	100

Aurreko taularekin bat, inbertsioen ehuneko 58 transferentziekin finantzatu dira; ehuneko 22 zorpetzearekin, eta, azkenik, ehuneko 20 entitateak berak sortutako baliabideekin.


Bestalde, jotzen dugu 2000-2014 aldian kapitaleko gastuen (6. eta 7. kapituluak) guztizko kopuruak kapitaleko diru-sarreraren (6. eta 7. kapituluak) eta zorpetzearen guztizko kopurua gainditzeko duela. Horrenbestez, oro har uler dezakegu lortutako kredituak arrazoiz aplikatu direla inbertsioak egitera.

III.3. MENDIGORRIKO UDALAREN AURREKONTU-EGOERA 2014ko ABENDUAREN 31n


Zortzigarrena. Udalaren aurrekontuen betetze orokorra (2000tik 2014ra)

1. eranskinean, Udalaren aurrekontuen exekuzioa erakusten dugu, 2000tik 2014ra arteko aldirako. Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:


- Aldi horretan, Udalak ia 16 milioi euro gastatu ditu. Gastu horren ekitaldien arabera bantaketa ondorengo irudian erakusten dugu.



Aurrekontu-gastuaren batez bestekoa milioi bat euro ingurukoa da. Nabarmentzekoak dira 2002ko, 2007ko eta 2009ko ekitaldiak, zeinetan inbertsioen kapituluak nabarmen igoarazi baititu urteko gastuak. Hartara, ondorengo irudian erakusten dugu guztizko gastuaren eta inbertsioetako gastuaren bilakaera.



- Guztizko diru-sarrerak 16,3 milioikoak izan dira. Haien urtez urteko xehetasuna ondorengo irudian ikus daiteke.



Diru-sarreraren batez bestekoa 1,1 milioi euro ingurukoa da. Diru-sarreraren bolumen handiena duten ekitaldiak (2002koa, 2006koa eta 2008koa) bat datoz finantza-pasiboak hartzearekin eta kapital-transferentzietan diru-sarrera aipagarri bat izatearekin.


• Laburbilduz, Udalak 2000tik 2014ra arteko epean gastatutako 100 euro bakoitza ondorengo taulan adierazitakoaren arabera erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	2000-2014	Finantzabidea	2000-2014
Langileak	18	Tributu bidezko diru-sarrerak	29
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	26	Transferentzia arruntak	27
Transferentziak	8	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	7
Inbertsioak	43	Kapital-transferentziak	24
Finantza-zama	5	Finantza-pasiboak	13
	100		100

Ikusten den bezala, aldi horretako gasturik aipagarriena inbertsioena da, 6,86 milioi egiten baitu, hau da, guztizkoaren ehuneko 43; ondasun arruntek eta zerbitzuek eta langile-gastuek zazpi milioi egiten dute –guztizko gastuaren ehuneko 44–; finantza-zama, azkenik, 0,81 milioikoa da guztira –ehuneko bost–.

Gastu hauek, funtsean, honela finantzatu dira: ehuneko 51, transferentziekin; ehuneko 29 tributuen bidezko diru-sarrerekin, eta ehuneko 13 zorpetzearen bidez.

Hurrengo irudian erakusten dugu inbertsioetan egindako gastuen kopuru metatuta, bai eta kapital-transferentziena eta finantza-pasiboena ere:



Bederatzigarrena. Aurrekontu-adierazleak

Azkeneko bost ekitaldietan zentratuta, hurrengo taulan erakusten dugu zenbait adierazleak eta aurrekontu-magnitudek izandako bilakaera.

Adierazleak	2010	2011	2012	2013	2014
Diru-sarrera arruntak	775.567	741.133	728.666	752.652	760.094
Funtzionamendu gastuak	643.959	605.631	620.644	644.983	625.245
Aurrezki gordina	131.608	135.503	108.022	107.669	134.849
Finantza-zama	66.624	70.548	65.985	59.562	95.274
Aurrezki garbia	64.983	64.955	42.038	48.107	39.576
Zorpetze-maila (%)	9	9	9	8	13
Zorpetze muga (%)	17	18	15	14	18
Zorpetze-ahalmena (%)	8	9	6	6	5
Tributu bidezko diru-sarrerak	334.502	333.395	333.648	348.044	346.624
Gastu arruntak	668.536	634.376	644.981	658.840	635.030
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	50	53	52	53	55
Aurrekontu-emaizta	101.276	84.180	4.940	117.779	41.952

Datu horiek guztiak aztertuta, honako hauek azpimarratuko ditugu:

- Aurrezkiari aztertutako aldiko antzeko terminoetan eusten zaio, eta nolabaiteko egonkortasuna adierazten du diru-sarrera arruntan kopuruei eta funtzionamendu-gastuen kopuruei dagokienez.
- Finantza-zamak 2014an gora egin du, zeren eta ekitaldi horretan Rural Kutzarekiko kredituen bolumen handiena amortizatu baita.
- Zorpetzeko gaitasunak behera egin du 2014an, nahiz eta oraindik ere balio positiboetan dauden.
- Halaber, tributu bidezko diru-sarreretan eta gastu arruntetan egonkortasuna dago. Diru-sarrera horiek gastu arruntan ehuneko 50 baino gehiago finantzatzen dute.
- Aurrekontu-emaiztek, halaber, saldo positiboak erakusten dituzte, nahiz eta alde nabarmenak daude ekitalditik ekitaldira.

Azken batean, adierazle hauek, aurrekontuaren ikuspuntutik, erakusten dute Udalaren egoera positiboa dela.

Hamargarrena. Langileak

Udalaren langile-kopuruak honako bilakaera hau izan du, plantilla organikoen arabera:

Langileak	Kopurua
2000	4
2010	4
2014	4

Hau da, aztertutako aldirian, kopuruak ez du gora egin. Plantillako langileak, daukaten lotura juridikoari erreparatuta, funtzionario bat –aguazila, D taldekoa–, lan-kontratupeko bi langile –E taldeko zerbitzu anitzetako langile bat eta D taldeko administrari laguntzaile bat– eta behin-behineko langile bat –idazkari eta kontu-hartzailea, A taldekoa–.

Haien ordainsariak beren mailari eta honako osagarri hauei dagozkionak dira –ia aldaketarik ez dute izan azken urteotan–:

Langileak	Osagarriaren ehunekoa
Aguazila	-
Askotariko zerbitzuetako langilea	15
Administrari laguntzailea	12
Idazkaria-kontu-hartzailea	20

Aurreko langileez gainera, aurreikusita dago lanaldi partzialeko edo aldi jakin batzuetarako beste zazpi langile kontratatzea. Pertsona horiek berariaz jarduten dute obra txikietan, mantentze-lanetan eta udal igerilekuetako lanetan.

Aztertutako aldian –txosten honen 1. eranskinean ikus daitekeen bezala– langileen guztizko gastuek 2,8 milioi egin dute gora, eta Udalaren guztizko gastuaren ehuneko 18 egiten dute.

2000tik 2014ra doazen ekitaldietan, langileen aurrekontu-gastuek ehuneko 30 egin dute gora, 0,16 milioitik 0,21 milioira.

Hamaikagarrena. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako eta inbertsioen kudeaketako gastuak

2000 eta 2014 bitartean, gastu horiek bi halako eta gehiago bilakatu dira, 2000n 170.727 eurokoak izatetik 2014an 360.010 izatera pasa baitira.

Gastu horiek aztertutako aldian egindako inbertsioetan daukaten eraginari dagokionez, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Gizarte-etxea. Haren kudeaketa errentamenduan emana dago, eta errentariak haren ustia-keta-gastu guztiak ordaintzen ditu, bai eta Udalarentzako kanon sinboliko bat ere, urtean euro batekoa. Udalak, 2014an, 410 euroko kontserbazio-gastua hartu du bere gain.

- Futbol zelaia Mendi Kirol Taldeak kudeatzen du zuzenean, eta Udalak kontserbazio gastuak hartzen ditu bere gain: 2014an 2.581 eurokoak izan ziren.

- Udako igerilekuak. Udalak zuzenean kudeatzen ditu, horretarako behar diren langileak kontratatuz. Bere gain hartzen ditu gainerako gastuak, eta sarrerren kobrantza ere berak kudeatzen du. Gastuek 40.000 euro egin dute eta diru-sarrerak, berriz, 30.000 euro. 2014an, kudeaketa horrek 12.200 euroko kostu garbia ekarri zion Udalari.

- Pilotalekua. Ez du kudeaketarako langile berariazkorik behar, eta kontserbazio- eta elektrizitate-gastuek 4.400 euro egin dute 2014an; tasen bidezko diru-sarrerak, berriz, 300 eurokoak izan dira. Kudeaketa horren kostu garbia 4.100 eurokoa izan da guztira 2014an.

- Otiak 3 urtera bitarteko haur eskola. Zerbitzuen emakidarako kontratu baten bidez kudeatzen da. Esleipen-hartzaileak zentroko funtzionamendu-gastuak eta jantokikoak hartzen ditu bere gain; horren kontrapartida gisa, Udalak 100.126 euro ordaintzen dizkio gehienez. Bere aldetik, Udalak berak kudeatzen ditu familiek ordaintzen dituzten kuotak, eta Nafarroako Gobernuaren kasuko diru-laguntza jasotzen du.

2014an, eskolak Udalari 100.000 euro inguruko gastua ekarri dio, eta 73.000 euroko diru-sarrerak; horrenbestez, 27.000 euroko kostu garbia sortu da Udalarentzat.

Hamabigarrena. Tokiko zergak

Ondoko taulan tokiko-zergak direla-eta aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da, milaka eurotan:

Zergak	2010	2011	2012	2013	2014	Urteko batez bestekoa (2000 eta 2014 bitarte)
Landa lurren gaineko kontribuzioa	29.673	47.493	37.591	37.778	37.780	33.309
Hiri lurren gaineko kontribuzioa	108.374	115.981	119.483	118.685	118.023	91.204
Ibilgailuak	61.592	64.066	67.722	66.536	68.274	51.417
Lurren balioaren igoera	4.353	1.789	3.162	10.701	3.320	6.550
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	17.992	19.692	19.801	18.050	16.990	13.382
Barrutien aprobetxamendua		173	173	173	173	46
<i>Zuzeneko zergak, guztira</i>	<i>221.984</i>	<i>249.193</i>	<i>247.932</i>	<i>251.924</i>	<i>244.561</i>	<i>195.909</i>
EIOZa	45.025	23.768	11.646	12.542	8.904	63.640
Zergak, guztira	267.009	272.961	259.578	264.465	253.465	259.549

2000 eta 2014 bitartean, Udalak aitortutako zergek guztira 3,9 milioi euro egin dute. Oro har, guztizko diru-sarreraren ehuneko 24 egiten dute. Tributu-figurari erreparatuta, garrantzi aipagarria dute hiri lurren gaineko kontribuzioak -1,4 milioi-, EIOZak -0,9 milioi- eta ibilgailuen gaineko zergak -0,7 milioi-.

Zenbait ekitalditan zehar, alde aipagarriak gertatzen dira, batez ere EIOZean; hartara, haren gehieneko kopurua, 2007an, 0,33 milioikoa da; 2014an, berriz, haren gutxieneko kopurua, berriz, 8.904 eurokoa da.

Hurrengo taulan jaso ditugu 2012ko ekitalditik Udalak tokiko zergetan aplikatutako tasak eta haien eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoen arteko alderaketa:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,24	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,2	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,5	2 eta 3,3 bitarte
Zerga-tasa	14	8tik 20ra
EIOZa	4,1	2 - 5

Ikus daitekeen bezala, Udalak aplikatutako tasak legediak aurreikusitakoen tarte ertain-altuan daude.

Bestalde, balorazio-ponentziaren azken gaurkotzea 2005eko martxoan egin zen.

Hamahirugarrena. Toki Ogasunen Funtseko diru-sarrerak

Toki Ogasunen Funtseko diru-sarrerak direla-eta izan dituen diru-sarrerak, bai haien eta Udalaren guztizko diru-sarreraren arteko alderaketa ere, ondorengo taulan ageri direnak dira (euroak, milakotan).

Ekitaldia	Toki ogasunen funtsa	Diru-sarrera arruntak (%)	Guztizko diru-sarrerak (%)
2000	151	33	20
2001	80	19	15
2002	162	29	9
2003	185	35	31
2004	185	30	13
2005	198	34	27
2006	215	31	14
2007	233	25	17
2008	242	34	13
2009	260	38	22
2010	260	34	23
2011	257	35	28
2012	257	35	32
2013	257	34	30
2014	259	34	33

Hau da, 2000 eta 2014 bitartean, Udalak guztira 3,2 milioi jaso ditu funtsetik. Horrek, oro har, diru-sarrera arrunten ehuneko 32 egiten du, eta guztizko diru-sarreraren ehuneko 20. Azkeneko hiru urteetan, portzentaje horiek ehuneko 30etik gora daude.

III.4. KUDEAKETAREN BESTE ALDERDI EDO ARLO BATZUK**Hamalauugarrena. Diruzaintza eta diruzaintza-gerakina**

- Kontuan izanda III.1 atalean kreditu-polizei emandako tratamenduari buruz egindako iruzkinak, Udalaren diruzaintzaren bilakaera, egoera-balantzeen arabera, hurrengo taulan erakusten duguna da (euroak, milakotan).

Ekitaldia	Diruzaintza
2000	774
2001	717
2002	739
2003	530
2004	607
2005	460
2006	1.096
2007	636
2008	1.197
2009	533
2010	521
2011	544
2012	522
2013	629
2014	637

Hau da, likidezia aipagarri eta nahiko homogeneous dago aztertutako ekitaldietan. 2006ko eta 2008ko ekitaldietako diruzaintzako goruneak bat datoz ekitaldi horietan egindako zorpetzearen itunzearekin.

Alabaina, azken bost urteetako diruzaintza-saldoa xehakutzen badugu, honako hau ikusiko dugu:

Diruzaintzako kontuen deskribapena	2010	2011	2012	2013	2014
Kredituak, erabili gabeko saldoa	521.368	528.854	521.526	629.394	637.469
Kontu korronteak eta banaketakoak	-60	14.676	119	-65	-48
Eskudiru-kutxa	0	120	76	2	47
Diruzaintzako saldoa	521.308	543.650	521.721	629.331	637.468

Hau da, diruzaintzako saldo ia guztia dagokio kreditu-polizetatik erabili gabeko saldoari, eta azken horiek kontu korronte arrunten gisara erabiltzetik heldu da.

- 2010-2014 aldirako diruzaintza-gerakina honela xehakutzen da:

Diruzaintza-gerakina	2010	2011	2012	2013	2014
+ KOBATZEKE DAUDEN ESKUBIDEAK	103.197	110.868	92.477	89.845	93.292
+ Diru-sarreraren aurrekontua. Aurtengo ekitaldia	55.146	60.742	44.463	42.593	44.606
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	300.251	309.925	324.083	337.433	355.068
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	37.651	37.165	38.737	37.912	38.643
- Bilketa zaileko eskubideak	289.850	296.963	314.806	328.093	345.025
- ORDAINTZEKO DAUDEN BETEBEHARRAK	132.455	159.523	132.388	126.660	137.413
- Gastuen aurrekontua. Aurtengo ekitaldia	65.470	91.389	63.030	49.451	59.604
- Gastuen aurrekontua. Itxitako ekitaldiak	42.290	42.342	43.007	44.224	45.053
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	24.696	25.791	26.351	32.985	32.756
+ DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK	521.308	543.650	521.721	629.331	637.468
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	17.124	6.726	0	0	0
= DIRUZAINZTA-GERAKINA, GUZTIRA	509.173	501.721	481.809	592.516	593.347
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	0	0	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	258.881	258.881	258.881	253.582	253.582
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	250.292	242.840	222.928	338.933	339.764

Ekitaldi ia guztiek guztizko diruzaintza-gerakin eta gastu orokorretarako gerakin positiboak daukate. Alabaina, jada aipatu den bezala, funts likidoetan ez dira sartzen kreditu-polizetatik erabili gabeko saldoak. Zenbateko horiek kontuan hartu gabe, aurreko magnitudeak nabarmen negatiboak izanen lirateke eta Udalak Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritako neurri zuzentzaileak hartu beharko lituzke.

Baliabide atxikien ondoriozko gerakina gure ustez urte hauetan udal ondarean egindako obrak finantzatzeari aplikatu behar zitzaizkion hirigintza-aprobetxamenduetatik heldu da.

Azken batez, araudi indardunari jarraituz, kredituen erabili gabeko saldo horiei aplikatutako kontabilitate-tratamenduak eragina du Udalaren diruzaintzan bertan eta diruzaintza-gerakinean.

Hamabosgarrena. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak

- Aktibo zirkulatzailerearen barruan, aipatu behar dugu itxitako ekitaldietako eta aurrekontuz kanpoko zordunen igoera, zeina 2000n 35.843 euroko saldoa izatetik 2014an 393.711 euroko saldoa izatera pasa baita.

Itxitako ekitaldietako aurrekontu-zordunetan zentratuta, 2014an ondare-masa honen hasierako eta amaierako saldoak 0,38 eta 0,36 milioioak dira, hurrenez hurren. Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

a) Zorraren ehuneko 78 2008ko ekitaldia baino lehen sortu zen. Horrenbestez, hura kobratzeari begira preskripzioak egon daitezke.

b) Izaerari dagokionez, ehuneko 76 –hau da, 268.743 euro– tokiko zergei dagozkie. Horien artean, EIOZa nabarmendu beharra dago bereziki, 194.562 euroko zorrarekin. Funtsean, eraiki ez ziren etxebizitzaren sustapen bati dagokio.

c) 2014an zehar, 25.143 euro kobratu dira: 2000tik 2004ra bitarteko zordunengandik ez da inongo kopururik kobratu; 2005etik 2012ra, berriz, 2.480 euro bildu dira bitarteko zordunengandik; 2013an, azkenik, 22.663 euro kobratu dira zordunengandik.

- Epe laburreko hartzekodunei dagokienez, nolabaiteko egonkortasuna aurkitu dugu azken urteetako zenbatekoetan. 2014ko abenduaren 31n, saldoa 137.413 eurokoa da; horietatik, ehuneko 43 ekitaldi horretako zordunei dagokie; ehuneko 33 itxitako ekitaldietako zordunei, eta ehuneko 24, azkenik, aurrekontuz kanpoko hartzekodunei.

Egindako azterketatik nabarmendu behar dugu ezen itxitako ekitaldietako hartzekodunen barruan –45.053 euroko saldoarekin–, ehuneko 94 2008ko ekitaldia baino lehenago sortutako zenbatekoei dagozkiela, eta zor horiek ia aldaketarik gabe mantendu direla 2010etik.

Hamaseigarrena. Gorabeherak

Nabarmentzekoa da etxebizitza batean izandako filtrazioengatiko erreklamazio bat, sareak berri eta zoladura jartzeko lan batzuen ondorioz. Sareen atala Izarbeibarko Mankomunitateak egin zuen, baina administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Udalaren aurka aurkeztu da. Erreklamaturako kopuruak 57.000 euro egiten du.

III.5. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZPIOAK (2012tik 2014RAKO EKITALDIAK)**Hamazazpigarrena. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak.**

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari jarraituz, Udalak, 2012tik 2014ra doan aldian, honako arau fiskal hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalerako terminoetan neurtua.

- Gastu-arauak, hau da, Udalaren gastu zenbakarriaren aldeak, ezin du gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori 2013ko, 2014ko eta 2015eko ekitaldietarako 1,7an, 1,5etan eta 1,3an ezarri zen, hurrenez hurren.

- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du Udalaren zorrak, kontabilitate nazionalerako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarreraren ehuneko 110a.

- Merkataritza-zorraren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Finantza-pasiboen, finantza-aktiboen eta emandako abalen eragiketa berriei buruzko finantza-iraunkortasuneko gainerako printzipioak ez zaizkio aplikatzekoak, zeren eta izaera horretako eragiketarik ez baitago.

Oro har, Udalaren kontu orokorretan ez da aipamenik egiten helburu horien betetzeari buruz, eta ez da kasuko informazioa ematen haren betetze-mailari buruz; zorraren finantza-iraunkortasunaren betetzea baizik ez da aipatzen.

Hala eta guztiz ere, Udalaren egoerari buruzko kalkulu bat egin dugu, printzipio horiei dagokienez. Horren arabera, honako ondorioak atera ditugu:

Hemezortzigarrena. Oreka/finantzaketa-gaitasuna kontabilitate nazionaleko terminoetan

Ganbera honek magnitude horri buruzko hurbilketa bat egin du, aurrekontu-saldo ez-finantzariotik abiatuta (diru-sarreraren 1. kapitulutik 7. kapitulura ken gastuen 1. kapitulutik 7. kapitulura) eta doikuntza² bat aplikatu du, zeina baita ekitaldi korronteko eta itxitako aurrekontuetako 1. kapitulutik 3. kapitulura bitarteko aitortutako eskubideei kapitulu beretako kobrantzak kentzetik heldutako aldea; halaber, 2012an doikuntza bat egin da 9. kapituluan egindako gastu-egozketa batengatik, zeina egiazki kapital-transferentzia bat baita.

Zenbatespen horren emaitza ondorengo taulan ageri dena da:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	47.595	170.529	103.451
Zergen bidezko diru-sarreraren zalantzazko diru-bilketaren doikuntza	-4.033	-18.580	-3.743
9. kapitulari egotzitako gastu ez-finantzarioen gastu handiagoengatik doikuntza	-1.400	-	-
Finantzatzeko ahalmena	42.162	151.949	99.708

Horrenbestez, egindako zenbatespenetik abiatuta, Udalak bere kontuak superabitarekin edo finantza-gaitasunarekin –kontabilitate nazionaleko terminoetan– amaitzeko helburua bete du

Hemeretzigarrena. Gastu-araua

Jo dugu 2013ko eta 2014ko aurrekontu-likidazioetan eta 2015eko aurrekontuetan gastu-araua bete egin dela.

Hartara, 2013ko eta 2014ko aurrekontuen likidazioetarako haietatik heldu den gastu zenbakarria alderatu dugu aurreko urteko likidaziotik heldutako gastu zenbakarriarekin. 2015eko aurrekontuaren kasuan, alderaketa hori aurreko ekitaldiaren likidazioarekin egin da.

Gure zenbatespenak oinarri, hurrengo taulan erakusten ditugu egindako kalkuluak:

Kontzeptua	2013ko likidazioa	2014ko likidazioa	2015eko aurrekontua
Gehieneko gastu zenbakarria (a)	594.374	587.973	593.586
Betetako/aurrekontuan jasotako gastu zenbakarria (b)	579.284	585.968	590.969
A-b aldea	15.090	2.005	2.617

Horrenbestez, Udalak gastu-arauaren arlorako legez ezarritakoak bete egin ditu. Hala eta guztiz ere, 2015eko ekitaldiari dagokionez, betetze hori ekitaldiaren amaieran konfirmatu beharko da.

² Araudian aurreikusitako gainerako doikuntzak ez dira aplikatzekoak edo haien kopuruak ez du garrantzirik.

Hogeigarrena. Zor publikoaren iraunkortasuna

Egonkortasunari buruzko araudiaren eraginetarako, ulertzen da zor publikoa dela entitateak ekitaldi bakoitzaren abenduaren 31n daukan zorra, egindako kreditu-eragiketen erabili gabeko saldoa kenduta.

Definizio horri jarraituz, hauexek dira Udalaren zor publikoaren saldoa eta hark diru-sarrera arruntetan egiten duen ehunekoa:

Ekitaldia	Zorra, kontabilitate nazionalaren arabera	Zorraren ehunekoa, diru-sarrera arrunten gaineko kontabilitate nazionalaren arabera
2012	1.375.109	188,72
2013	1.221.047	162,23
2014	1.127.159	148,29

Horrenbestez, Udalak argiro gainditzen du zorraren egonkortasunari buruzko arauan aurreikusitako ehuneko 110eko muga.

Egonkortasunari buruzko araudiak exijitzen du ezen, ehuneko 110a gainditzen duten entitateetan, 2012tik lortutako aurrekontu-superabitak –kontabilitate nazionalerako terminoetan neurturik– nahitaez aplikatu behar direla entitatearen zorpetze garbiaren bolumena gutxitzera, betiere gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin positiboa edukita. Aplikazio horren muga, zorraren beraren bolumenaz haratago, aipatutako superabitaren eta gerakinaren arteko balio txikienean dago.

Finantzaketa-gaitasunari buruzko gure zenbatespenei jarraituz, hurrengo taulan erakusten dugu magnitude hori, bai eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina eta amortizatutako zorra ere, aurrekontuaren likidazioaren arabera:

Ekitaldia	Finantzatzeko ahalmena	Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	Amortizatutako zorra, aurrekontuen arabera
2012	42.162	222.928	
2013	151.949	338.933	46.194
2014	99.708	339.764	85.812
2015 (urrira arte)			85.812

Udalak bere finantzaketa-gaitasunaz gorako diruzaintza-gerakin positiboa baduenez, gure ustez 2014an eta 2015ean gutxienez ere gaitasun horren kopurura arte amortizatu behar zuen, horretarako diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako aurrekontu-aldaketa edo kreditu-gehikuntza bat eginez.

Hala eta guztiz ere, gerakinari buruzko atalean komentatu dugun bezala, formalizatutako kredituetako erabili gabeko zenbatekoak funts likidoetan sartzeak haien saldoa aldatzen du, zeren eta haiek kontuan hartu gabe, magnitude hori negatiboa izanen bailitzateke; kasu horretan, Udalak –Nafarroako toki ogasunei buruzko araudian aurreikusitako neurriez gainera– plan ekonomiko-finantzario bat onetsi beharko luke, zeinak aukera emanen balioke bere zorpetze-muga jada aipatutako ehuneko 110eraino gutxitzeko.

Hogeita batgarrena. Merkataritza-zorraren iraunkortasuna

2015ean, Udala fakturen erregistroa ezartzen ari da. Erregistro hori ezinbestekoa da hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatu ahal izateko.

Horrenbestez, ezin dugu dugu esan aztertutako ekitaldietan Udalak araudi indardunean ezarritako epeak bete dituen. Hala eta guztiz ere, haren kontabilitate-erregistroetan ez dira jaso hornitzaileentzako ordainketetan izandako atzerapenengatiko berandutza-interesetatik heldutako gastuak.

III.6. AMAIERAKO LABURPENA ETA GOMENDIOAK

Aztertutako aldian, Udalak inbertsio-ahalegin handia egin du, zeina ia zazpi milioi eurokoa izan baita, eta horrekin nabarmen hobetu ditu udal ekipamenduak. Inbertsio horiek, funtsean, kapital-transferentziekin, zorpetzearekin eta baliabide berekiekin finantzatu dira.

Jarduketa horien ondorioz, zorpetze handia sortu da, zeinak 2014ko abenduaren 31n 1,76 milioi egiten baitu, nabarmen gaudituz foru araudian eta aurrekontu-egonkortasuneko arauetan ezarritako legezko mugak. Hala eta guztiz ere, 2008tik ez du zorpetze gehiagorik hartu.

Jarduketa horiek nabarmen handitu dute urteko aurrekontuen zenbatekoa, bereziki 2002ko, 2007ko eta 2009ko ekitaldiei dagokienez. 2011tik, halere, horiek nabarmen gutxitu dira, funtsean inbertsioen kapituluak, eta, horrenbestez, haren finantzabideek, nabarmen egin dutelako behera.

Udalak, 2014ko abenduaren 31n, arrazoizkoa den aurrekontu-egoera dauka, eta aurrezkiak sortzeko gaitasuna badauka. Halere, zorraren aipatutako bolumen handiak eragina izan dezake haren finantza-iraunkortasunean.

Halere, zorpetze horrek, itundutako kredituen muga guztiz ez agortzeaz gainera, oso aldekoak diren finantza-baldintzetan dago hitzartua, eta aukera eman dio diruzaintzako koiunturazko beharrei aurre egiteko funts gehigarri batzuk edukitzeko. Azken batez, Udalak kreditu-kontuak ia kontu korronte moduan erabili ditu bere funtzionamendu arrunterako.

Bestalde, kreditu horiei emandako kontabilitate-tratamenduak, Nafarroako egungo kontabilitate-araudiaren arabera, eragina du bai zorraren bolumenean bertan, bai diruzaintzako saldoetan eta diruzaintza-gerakinean. Magnitude horien kalkuluan erabili gabeko saldoek daukaten eragina kontuan hartu gabe, agerian geratuko litzateke Udalaren diruzaintzak egoera ahula duela.

Udalari gomendatzen diogu honako ekintza hauek azter ditzan:

- *Hiru edo lau urterako jarduketa-plan bat egitea, Udalaren epe ertaineko bideragarritasun ekonomikoa eta finantza-iraunkortasuna bermatze aldera; horretan, funtsean, honako neurri hauek jasoko dira:*

- a) *Bera aplikatzen den aldian, diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia jaistea foru araudi indardunean adierazitako mugetaraino. Horri dagokionez, Rural Kutxaren kredituen urteko amortizazioak/gutxitzeak aukera eman dezake helburu horretara iristeko, etorkizuneko aurrekontuen bideragarritasun finantzarioa eta belaunaldien arteko ekitatearen printzipioa bermatzeaz gainera.*

- b) *Kredituen erabili gabeko saldoen kontabilitate-tratamenduaren eragina kontuan hartuta, diruzaintzako plan errealista bat egitea, non jasoko baitira ordainketen eta kobrantzen aurreikuspenak, bai eta, kasua bada, finantzaketaren beharrian iragankorrak ere.*

- c) *Baliabide arrunt eta bereziak sortzeko gaitasuna aztertu eta analizatzea.*

- d) *Gastu arruntak jasotzea, kudeaketan aurrezki neurriak aztertuz eta ezarriz.*

- e) *Inbertsioetan, soilik jasotzea sozialki eta ekonomikoki lehentasunezkoetat jotzen direnak, haietarako behar adinako finantzaketa lortuta. Kasua bada, inbertsio horiek finantzatzeko diruzaintza-gerakin atxikia aplikatzea.*

- f) *Katastro-balorazioari buruzko ponentzia berrikustea eta udal zergetan aplikatzen diren tasa indardunen egokitasuna aztertzea.*

- g) *Tasa eta prezioak zerbitzuaren kostuari egokitzea, Udalarentzako kostu garbia ahal den guztian gutxitzeko; horren helburua izanen da ahal den guztian lortzea emandako zerbitzuek beren burua finantza dezatela, haien egungo tamaina ere aztertuz.*

- *Itxitako ekitaldietako zordunen eta hartzekodunen kontabilitate-saldoak aztertu eta berrikustea, eta, kasua bada, haiek erregularizatzea jotzea.*

- *Aurrekontua eta kontu orokorra onesteko espedienteetan sartzea aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen betetze-mailari buruzko azterketa eta informazioa. Horri dagokionez, gogoratu nahi dugu superabita edo finantzaketa-ahalmena*

zor bizia amortizatzera bideratzeko dagoen legezko betebeharra, Udala finantza-iraunkortasuneko legezko mugen barruan kokatu arte.

- *Fakturen erregistroa ezartzeko prozesua amaitzea eta hiru hilez behin hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia prestatu eta argitaratzea.*

Halaber, honako hauek gomendatzen dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

- *Toki entitateentzako kontabilitate-jarraibideak aztertzeke egungo prozesuan, aztertzea entitate horiek itundutako erabilera gradualeko kredituei emandako kontabilitate- eta aurrekontu-tratamendua.*

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an.

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

I. ERANSKINA. UDALAREN AURREKONTU-LIKIDAZIOAREN BILAKAERA (2000tik 2014ra)**2000-2014 epean aitortutako betebeharrak**

Kapitulua	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Langileak	162.594	173.444	187.434	193.215	183.183	181.983	192.698	188.203	188.417	170.689	197.804	191.499	193.058	208.135	211.008
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	170.727	143.867	141.481	161.765	224.213	265.634	283.762	285.918	293.646	353.678	381.063	347.214	377.635	378.583	360.010
Finantza-gastuak	357	261	3.428	14.300	12.690	11.790	9.262	20.652	40.789	26.821	24.576	28.745	24.337	13.856	9.785
Transferentzia arruntak	26.873	29.362	46.236	71.495	77.539	115.647	101.379	123.404	113.211	114.106	65.092	66.917	49.950	58.266	54.227
Inbertsioak	83.264	250.153	1.376.965	306.760	678.777	276.165	457.388	1.082.756	553.054	1.031.537	385.188	220.462	104.630	17.068	34.497
Kapital transferentziak	36.305	7.635	52.323	68.762										1.296	1.369
Finantza-aktiboak															60
Finantza-pasiboak	15.560	15.560	15.560	30.321	72.902	44.515	7.145	38.216	26.519	42.379	42.379	43.538	43.779	46.194	85.812
Gastuak, guztira	495.679	620.282	1.823.426	846.618	1.249.304	895.733	1.051.635	1.739.148	1.215.636	1.739.209	1.096.103	898.376	793.391	723.398	756.769

Aitortutako eskubide garbiak, 2000-2014

Kapitulua	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Zuzeneko zergak	113.499	119.958	145.745	146.892	163.992	175.723	195.098	215.236	227.185	219.712	221.984	249.193	247.932	251.924	244.561
Zeharkako zergak	49.023	29.568	98.683	59.302	89.990	25.096	90.022	333.874	47.369	29.785	45.025	23.768	11.646	12.542	8.904
Tasak eta prezio publikoak	41.406	40.910	66.606	42.616	42.466	54.240	68.894	39.736	27.753	41.159	67.493	60.433	74.071	83.578	93.158
Transferentzia arruntak	207.465	175.936	188.616	230.022	240.072	270.227	289.525	306.336	359.757	345.747	402.718	351.440	341.211	349.922	351.226
Ondare bidezko diru-sarrerak	52.169	51.305	63.231	57.132	79.198	54.204	49.046	52.101	46.901	51.700	38.346	56.299	53.807	54.686	62.245
Inbertsioen besteren-tzea		2.404	261.297		10.834	1.800	4.728							555	
Kapital transferentziak	293.280	123.818	231.782	53.099	828.306	163.246	301.521	418.586	396.982	492.410	349.341	167.693	68.540	94.525	14.253
Finantza-pasiboak			738.072				541.471	793.000							
Diru-sarrerak, guztira	756.843	543.897	1.794.032	589.064	1.454.857	744.536	1.365.869	1.898.947	1.180.514	1.124.908	908.826	797.206	847.732	847.732	774.347

II. ERANSKINA. UDALAREN BALANTZEAREN BILAKAERA (2000-2014)**Aktiboa abenduaren 31n (2000-2014)**

Deskribapena	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Ibilgetua	615.436	870.306	1.938.620	2.223.867	2.821.718	3.052.611	3.428.793	4.497.492	5.038.882	6.057.251	6.425.435	6.631.812	6.712.437	6.713.369	6.728.246
1. Ibilgetu materiala	445.861	482.429	239.448	374.814	452.447	619.701	748.835	1.665.504	1.936.404	2.801.084	3.077.448	3.104.587	3.107.803	3.109.291	3.124.168
3. Erabilera orokorrera bideratutako azpiegiturak eta ondasunak	112.282	250.511	1.511.348	1.629.091	2.150.204	2.171.862	2.410.805	2.562.835	2.746.489	2.898.770	2.985.369	3.164.608	3.242.016	3.241.461	3.241.461
4. Herri-ondasunak	57.294	137.257	187.717	219.853	218.958	260.939	269.045	269.045	355.880	357.288	362.509	362.509	362.509	362.509	362.509
5. Finantza-ibilgetua	0	109	109	109	109	109	109	109	109	109	109	109	109	109	109
Zirkulazioa	841.200	799.479	946.947	686.037	1.069.894	577.792	1.281.005	1.131.901	1.698.071	903.681	914.355	951.481	929.003	1.047.268	1.075.785
7. Ixkitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko zordunak	35.843	62.679	140.041	88.659	67.939	92.928	143.194	279.596	336.694	318.350	337.902	347.089	362.820	375.345	393.712
8. Aurrekontuko zordunak	31.752	20.024	67.744	68.920	394.540	25.126	41.925	215.932	164.217	52.769	55.146	60.742	44.463	42.593	44.606
9. Finantza-kontuak	773.605	716.775	739.162	530.458	607.415	459.738	1.095.886	636.373	1.197.160	532.562	521.308	543.650	521.721	629.331	637.468
Guztira	1.456.636	1.669.785	2.885.567	2.911.903	3.891.612	3.630.403	4.709.798	5.629.393	6.736.952	6.960.932	7.339.789	7.583.293	7.641.440	7.760.637	7.804.031

Pasiboa abenduaren 31n (2000-2014)

Deskribapena	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Funts berekiak	1.071.585	1.265.585	1.582.044	1.640.032	2.511.732	2.634.483	3.057.080	3.820.366	4.277.992	4.786.573	5.210.081	5.484.756	5.612.417	5.783.537	5.901.990
1. Ondarea eta enreser-bak	1.004.664	1.202.524	1.435.757	1.613.614	2.385.468	2.631.832	2.715.556	3.381.668	4.197.068	4.784.361	5.103.050	5.378.390	5.527.890	5.691.362	5.778.110
Ekitaldiko emaitza eko-nomikoa	66.921	63.062	146.287	26.418	126.264	2.651	341.524	438.699	80.924	2.212	107.031	106.366	84.527	92.175	123.880
Epe luzeko zorrak	244.345	228.785	951.297	920.976	848.074	803.560	1.337.886	1.305.399	2.098.399	2.023.772	1.997.253	1.939.014	1.896.635	1.850.441	1.764.628
4. Jasotako prestamenak, malleguak, fidantzak eta gordailuak	244.345	228.785	951.297	920.976	848.074	803.560	1.337.886	1.305.399	2.098.399	2.023.772	1.997.253	1.939.014	1.896.635	1.850.441	1.764.628
6.-Aurrekontuko hartze-kodunak	140.706	175.415	352.226	350.895	531.806	192.360	314.832	503.627	360.562	150.587	132.455	159.523	132.388	126.660	137.413
5. Ixkitako aurrekontue-tako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	117.269	124.535	119.491	145.224	143.243	148.272	89.575	95.237	61.221	67.191	66.986	68.134	69.358	77.209	77.808
6.-Aurrekontuko hartze-kodunak	23.437	50.880	232.734	205.671	388.562	44.088	225.257	408.391	299.340	83.396	65.470	91.389	63.030	49.451	59.604
Pasiboa, guztira	1.456.636	1.669.785	2.885.567	2.911.903	3.891.612	3.630.403	4.709.798	5.629.393	6.736.952	6.960.932	7.339.789	7.583.293	7.641.440	7.760.637	7.804.031

MENDIGORRIKO ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**Mendigorriko Udalaren 2014ko ekitaldiaren finantza-egoera txostenaren behin-behineko bertsiolari aurkeztutako alegazioak. 2016ko urtarrila.**

Kontuen Ganbararen alde aurretiko txostena jaso dut. Beste ezer baino lehen, uste dut eskertzekoa dela txostena egiteko egin duzuen ahalegina eta izan duzuen prestutasuna, Nafarroako toki entitateen kopurua handia da eta.

Hurrengo alegazioek ez diote balioa kentzen Ganberak, auditoreak eta Ganberako gainerako teknikariek edo Udaleko idazkari eta kontu-hartzailea denak (orain dela bi hamarkada inguru behin-behineko langilea dena) egindako ahalegin handiari, eta ez dute bera alboratzen.

1) Gogoeta orokorrak:

Lehenbizi, ulertzekoa da txostenaren terminologia araudiari dagokiona izatea, baina beldur naiz hura irakurtzeko jakin-mina duten herritarrek ez dutela ideia argirik aterako hark adierazi nahi duenari buruz, ez badituzte haren termino eta kontzeptuak ezagutzen. Hori dela eta, agian onuragarri gerta liteke ondorioak argiago emanen lituzkeen laburpen bat egitea, txostenaren esparruaren barrenean ere ulergarriagoa den lengoaia bat erabiliz.

Bestalde, kargu politikoak erantzule egiteko ekarpen gisa, irakurlearentzat garrantzitsu, edo behinik behin baliagarri, gera liteke txostenak aipa dezala zein egon ginen alkatetzan aztertutako aldiak eta kasu kasuko urteetan.

Irakurle ororentzat baliagarri gerta litekeen beste alderdi bat izanen litzateke txosten honi gehitzea nolakoa izan den testuinguru ekonomikoa, urte askotako datuak aurkeztu diren aldi berean. Hori lor liteke lerro bat gehituz, BPGaren (nazionalarena nahiz Nafarroarena) hazkundea adierazten duena. Eta testuinguruari buruzko informazio hori amaierako orrialdeetan (28.a eta 29.a) ez ezik, 8, 9, 13, 16, 18 eta 21. orrialdeetako irudi eta tauletan ere agertu beharko litzateke.

Eskaerari dagokionez, txostenaren izenburuan "2014" dioen arren, gure ustez aldi luzeagoa hartzen du, eta 2015eko zati bat ere hartzen du, hain zuzen ere agintaldi-aldaketa gertatu den urtea. Garrantzitsua izanen litzateke txostenean jasotzea Udalean egon nintzen agintaldiko azken egunetan Ganberari egin nion eskaera, "2014ko eta 2015eko urteetako kontu orokorren auditoria" egitekoa, zeren eta soilik jaso baita hurrengo agintaldian Osoko Bilkurak egindako eskaera. Nire ustez garrantzitsua eta adierazgarria izan daiteke nire argitasun-borondatea azaltzeko (ez soilik ondorengo zinegotzien borondatea). Udaleko zerbitzuek argitasunak eman ahalko dituzte eskarien xehetasunei buruz.

Azkenik, adierazi behar dut gogoeta eta alegazio horiek maila pertsonalean egiten ditudala, eta haiek prestatzeko ez dudala laguntza teknikorik edo instituzionalik izan, eta erabilitako baliabide bakarra nire denbora pertsonala izan dela; eta atseginez egin dudala, gainera.

2) Berariazko alegazioak, behin-behineko txostenaren orrialde-zenbakiaren arabera ordenatuak**11. orrialdea**

Garrantzitsu gerta liteke amortizazioari buruzko erabakiaren data aipatzea.

12. orrialdea

Baliagarri gerta liteke inbertsioak diru-laguntzen mailaren arabera sailkatzea, zeren eta obra batzuetan finantzaketaren ehuneko teorikoak handiagoak baitira beste batzuetan baino. Adibidez, zolatzeko lanek diru-laguntzetan ehuneko handiagoa izaten dute beste lan batzuek baino.

Gainera, diru-laguntzen aprobetxamendu-maila islatzeari begira, inbertsio bakoitzerako gehitu liteke diru-laguntzarako aurkeztu den aurrekontuko kostua, bai eta amaierako kostua ere (erreala); izan ere, bigarrena lehenengoa baino handiagoa izaten denez, diru-laguntzaren ehunekoa normalean txikiago gertatzen da (balio erlatiboetan, ez absolutuetan).

15. orrialdea

Baliagarri liteke inbertsiorik gabeko aurrekontuen/kontuen taula edo irudi bat aurkeztea, eta urteen kopuru mugatu bat hartuta haiek alderatzea anteko tamaina duten udalek egindakoekin (2.000 biztanle-tik beherako udalen azterlana).

16. orrialdea

Halaber, baliagarri gerta liteke udal honen langileen kopurua eta konparagarriak diren beste batzuen alderatzea.

17. orrialdea

Beldur naiz futbol-zelaiari buruzko 2014ko datuak ez daudela osorik, zeren eta kontserbaziokoak baizik ez baitira sartzen (2.581 eurokoak), funtzionamenduak kanpo utzita; horietan, ura, gasa eta elektritzitatea daude, eta horiexek dira gastu handienak.

Horietako batzuk igerilekuen gastuetan sartuta daudenez, oso bidezkoa izanen litzateke gastu horien zati bat igerilekuen gastuetatik futbol zelaiaren gastuetara aldatzea, denbora-egozpen antzeko bat eginez –futbol-zelaiak 9 hilabeteko funtzionamendua eta igerilekuek hiru hilabetekoa–, betiere fakturen datu erreparatuta (kontsumo errealak dauzkate; beraz fidagarriak dira).

19. orrialdea

Justiziazkoa litzateke tasak lerrun bakoitzean daukaten balioaren arabera bereiztea, oinarri hartuz zenbateko garrantzia duten Udalaren diru-sarreretan, ez soilik batez bestekoa eginez. Adibidez, hiri-lurren kontribuzioaren tasak diru-sarreraren ehuneko 50 inguru egiten du, eta beheko tartean dago.

Orduan honako hau aipatu beharko litzateke:

- Udalak hiri-lurren kontribuzioa dela eta aplikatzen duen tasa behean dagoen tartekoa da.
- JEZaren eta lursailen balioaren gaineko zergak erdiko tartean daude.
- EIOZa erdiko eta goiko tartearen artean dago.

Hori egokiagoa izanen litzateke “aurreikusitakoaren tarte ertain-altuan daude” esatea baino, zeren eta zerga batzuek pisu handiagoa baitute beste batzuek baino udal aurrekontuetan.

22. orrialdea

Interesgarri gerta daiteke (testuinguruaren adierazgarri gertatzeagatik) esatea 2. lerrokadan, hori agian zor dakiokela Udalak agintaldi honetan bide exekutiboko kobrantzak ezartzeari, kobratzeko beste aukerarik ez dagoenean (ordaintzeaz ahaztea ez bada).

22. orrialdea

Agian, adierazgarri gerta daiteke hamaseigarren klausulan, gorabeherei buruzkoan, honako hau esatea:

- errekurtsu hori noiz aurkeztu zen;
- eta horri gehitzea orain dela bi hamarkada ebatzi gabeko auzi judizial bat badagoela, Electra Labor SLk sustatutako minizentral bat eraikitzeari buruzkoa; izan ere, enpresa horrek bere garaian lortu gabeko irabazientzako kalte-ordain bat eskatu zion Udalari, goian aipatutako erreklamazioa baino askoz handiagoa (filtrazioei buruzkoa);
- eta gehitu beharko lirateke Nafarroako Ubidearen egungo zabalpena dela-eta Udalak, agian, egin beharko dituen inbertsioak.

24. orrialdea

Azkenurreko lerrokadan, agian ez litzateke desegokia izanen gehitzea ezen, Kontuen Ganberaren arabera, zorrak diru-sarrera arruntan gainean egiten duen ehuneko 2012an % 188,72koa izatetik 2014an % 148,29koa izateraino jaitsi dela, eta gainera aurkakoa den testuinguru makroekonomiko batean.

26. orrialdea

“Udalari gomendatzen diogu honako ekintza hauek azter ditzan:” dioen atalean, aipamenean bat gehitu liteke, Ganberak ez baitu baloratu haietakoren bat aplikatu den ala ez.

Gomendioetan, berezkoa denez nahiko orokorrak badira ere, badirudi alde batera utzi nahi direla 2011-2014 aldian hartutako neurriak; esate baterako, tasa eta prezio publikoak eta ondare bidezko diru-sarrerak handitzea, edo gastuei eustea (bizilagunek eta langileek neurri horiek ulertuta), edo katastroponentzia berri baten gastu aipagarria ez egitea testuinguru zalantzazko batean eta abar. Beste neurri batzuk ere egonen dira, une honetan ezin zehatz ditzakedanak, baina Ganberak azterketa hori egin nahi badu (eta soilik egin nahi badu), seguru aski Udalak horri buruzko informazioa prestatu ahalko luke.

Azkenik, berriz ere eskerrak eman nahi dizkiet bai Kontuen Ganberari, bai Udaleko idazkari eta kontu-hartzailea denari, txosten hau gauzatzeko egin duten lan eta ahaleginarengatik, nahiz eta seguruena baliabide eta langile gutxi eduki horretarako. Ederki ulertuko dut nire alegazioetako batzuk kontuan ez hartzea, baliabide edo informazio eskasa izateagatik, baina litekeena da baliagarri gertatzea etorkizuneko txostenetarako.

Manuel Tiago, Mendigorriko Udaleko alkate ohia (2011-2015).

MENDIGORRIKO UDALEKO ALKATE OHIAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN DIEN ERANTZUNA

Mendigorriko alkate ohiak aurkeztutako alegazioak aztertu ditugu, eta behin-behineko txostenaren edukian eraginik ez dituztenez, txosten hori behin betikotzat jotzea erabaki dugu.

Alabaina, Ganbera honek honakoak zehaztu nahi ditu:

Lehena. Udaleko Osoko Bilkuraren eskaera, zeina baita Ganbera honetan jasota dagoen dokumentu bakarra, berariaz Udaleko finantza-egoerari buruzkoa zen, eta, zehazkiago, haren zorpetze-mailari buruzkoa. Gure jarduketa alderdi hori aztertzeraz mugatu da; horrenbestez, ez da izan finantzen eta ekitaldi hauetan Udalak aurrera eraman duen finantza-jardueraren legezkotasunari buruzkoa izan.

Bigarrena. Aurreko helburua kontuan hartuta, eta behin Udalaren zorraren bolumena mugatuta, Ganbera honek Udalaren finantza-egoera bere testuinguruan jarri du haren inbertsio-jarduketa nagusiak, finantzabideak eta funtzionamenduari eta kudeaketari buruzko bestelako informazioa aipatuta.

Hirugarrena. Udalaren eskera betetzeko, ez zen egokitzat jo populazioa dela-eta antzeko tamaina duten beste udal batzuekiko alderaketa-azterketarik egitea, bai aztertutako aldiaren luzearengatik, bai Mendigorriko Udalaren zorraren berezitasun berezkoengatik ere.

Laugarrena. Minizentral baten eraikuntzatik heldutako auziari dagokionez, Udaleko idazkari eta kontu-hartzailea denak aipatzen du hura birbideratu eta jarduera sailkatuko udal lizentzia bat eskatu dela, eta gaur den egunean bera izapidetzen ari dela.

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas